



# BEGIZ BEGI



Begiz Begi taldea Baionan (Lapurdi) sortu zuten Patxi Amulet-ek eta Xabi Etcheverryk 2007an. Gero, 2010ean Sebastien Luc, Nicolas Armendariz eta Peio Lambert sartu ziren egungo boskotea finkatuta geratzeko. 2013an L'Atelier estudioan Antoine Gonzales teknikariak "Nora joan" (Miraila produkzioak) izenburuko EP bat grabatu zuen, sei abesietan Begiz Begi taldearen sei urteko lana batzeko. Baionako Euskal Museoa "Barne miraila" proiektuaren musika erakustaldia eskaini zuten. Handik lasterrera "Txilintxori" emanaldirako musika landu zuten eta 55 antzerkilarik, dantzarik eta kantarik hartu zuten parte. 2014an hogeitazuzeneko eman zituzten. "Elkar Sesioak" partekatutako diskoan agertu ziren. Bigarren diskoa 2015ean "Joan ihes egin baino lehen" diskoa auto-ekoiztu zuten, Etxe Tipi estudioan Jeremie Garat teknikariak grabatuta. Begiz Begi taldeak kontrastea maite izan du betidanik, rocka nahastuta esperimendazioarekin. Disko horretako abestiak jo zituzten 2015eko Banden Lehian (Azkie Fundazioak antolatuta) eta lehen saria irabazi zuten. Zuzeneko gogoangarrienak taldearentzat: Herri Urrats, BBK live, Araban Euskaraz, Korrikaren bukaera jaiak, Baionako bestak, Musikaren Besta (Urdiñarbe), Victoria Eugenia, Baionako antzokia, San Francisco (AEB) Chino (AEB), EH Sona, Estiv'Oc (Pau)... 2016an disko berri bat argitaratuko dute. Orain Begiz Begi taldeak disko berria du: Hatsa.

Begiz Begi taldearen hirugarren lana "Hatsa" da. Andoingo Garate estudioan grabatu, nahastu eta masterizatu du Kaki Arkarazok 2016ko uztailan. Hitzak Odei Barroso bertsolari eta raperoak egin ditu, euskal mitologia filosofikoarekin bustitako hitzak, gero azal eta marrazkietan ederki argitu du gaia Maiana Agorrody-k.

Begiz Begi Baionako taldearen hirugarren diskoak (Hatsa, biga-biga, 2016) sei abesti ditu, kasik zuzenean grabatuta estudioan eta era analogikoan. Begiz Begi taldean biolinak ikuspegi berritzailea ematen dio post-rockari, tarteka uztartuta ditu ukitu sasi edo post-progresiboak, malenkoniatsuak, lasaiak, pisu handiko pasarte indartsuak, instrumentalak eta euskal tradiziozko doinu usaiak zortziko itxurarekin. Soinuak anabasa dirudien arren, dena ongi pentsatu eta planifikatua dago, nahiz eta esperimendura eraman guztia rhodes tresnaren laguntzarekin. Anabesak bere barealdia du melodia trinko eta egituratueta. Ahotsaren tratamendua tanta triseekin zizelkatua dago. Askotan entzutekoa da gordeta duen altxorra gardenago bistartzeko. Maiana Agorrody marrazkilarik azalaren gainean zera dio: "Niretzat garrantzitsua da teknika aipatzea. Ikusten den beltza Indiako tinta da, lumarekin egin nuen eta kolorea akuarela, pintzelekin pausatua. Denbora aintz pasatu nuen egiteko, lasaitasun handian. Marrazki honek sustrai desberdinak ditu. Euskal etxea erdian agertzen da, gure gizartearen bihotza balitz bezala. Iparraldeko euskal gizartearen suposatzen dituen pisua eta engaiamendua aipatu nahi nituen. Etxearen azala erdian marraztu nuen, eta gordetzen edo ez diren ikusten gauza guztiak lurpean eta zeruan emaita erabaki nuen. Claude Labat-ek idatzitako "Libre parcours de la Mythologie basque" liburua aintz maitatu nuen, gure herriko sinbolo nagusiak eta keinu batzuk gehitu nituen, nire interpretazioa. Baita noski kantu berrien hitzak, joko handia eman zidaten, topera barnera sartu nintzen eta disko berriaren giro orokorra ere noski. Oso marrazki intimoa da".

## HATSA

Diskoaren gaia da. Apur bat gure bizitzako galderekin paralelismo bat egitea euskal mitologiarekin, bera gaurko gizartearen sendagai bat balitz bezala. Kantu hunek gure diskoa aurkezteaz gaindi, taldearen sonoritate berria ere bai. Post-rock estilokoa da eta asmoetan zuzenekoari erabat lotua dago.

## TANTARIK TANTA

Gelditasunean erroztaturik dagoen gizarte baten aurrean eta gaitz askotara lerratzen dena, ezin dugu bestearen partez guri atzemaitea litzatekeen irtenbidea itxaron. Guri dagokigu aurrera egitea eta indarrak atzemaitea, tantarik tanta, gure historia idazteko, inork manatu gabe. Musikalki, kantu hunek ortzi eguraldien sonoritateak dauzka, bortitza. Lehen planoko soinuak, behazaleak zuzenki jin edo etorri zaizkionak eta bigarren planokoak hodei ertzetan suma daitezkeenak.

## BAREALDIA

Ekaitzaren ondotik lasaitasuna, edo hobeki erraiteko, atsedaldia. Doinu instrumental hunek erabat aireko post-rock sonoritateak dauzka, baina Euskal Herrian dauzkagun dantza erritmoek zerutik lurrera eramanez gaitu. Doinu hunek Balmorhea eta Itoiz bezalako taldeen eraginak dauzka.

## ORAIN

Abesti horren idazteko gogo norberak bere bizian bizi ditzakeen galtze edo maluretan du oinarri. Maiz, balizko paradisu batera heltzeko nahian, funtsezko eta bizitzeko merezi duten gauza batzuen ondotik pasatzen gira. Orduan, bizi gaitezen orain. Doinu hunek dauka taldeak duen idazteko forma, a capela kantatu daitezkeen hasiera bat gehiago ezin atxiki genezakeen errepika indartsu batera heltzeko, bukaera instrumentala botatakoaz hausnartzeko.

## IKATZ ALA URREA

Gaurko sistemak proposatzen ez digun alternatiba da. Erabakitze askatasuna, gizakiak gehiago ez duena eta ballatzeko gai ez dena. Hemen, harribitxia urre horia eta berotasun eta argia irudikatzen duen ikatzaren arteko hausnarketa dugu. Baina zer da urre zuria? Zuhurtzia eta jakitatea adierazten duena? Musikalki forma aski kontzeptuala dauka, pasai instrumentalek abestutako parteei gaina hartzen baitiote. Soinu indartsua hasieratik tempo pisutsu batean.

## NEKIEN, DAKIT

Orain, segur naiz, nituen sentsazioak argiki azaltzen eta adierazten ahal ditudala, dudan marrazkia ez baita pantailaz animatua. Kurritzen dudun lur azpiak elikatzen nau eta zeruak inguratzen baita begiratzen. Ilunak biziaren kolorea hartzen du eta erakartzen nau, banator! Airezko hasiera baina soinuaren pisuarekin, Sonic Youth taldearen tankerara. Aitorpenak kopletan eta agurra edo eske kantua azken errepika joaiteko bestearengana.

Patxi Amulet: ahotsa, gitarrak, eskusoinua  
Xabi Etcheverry: biolina eta biolontxelo  
Sebastien Luc: gitarrak  
Nicolas Armendariz: bateria  
Peio Lambert: baxua

ritxi aizpuru + begiz begi (2016ko irailaren 28an)

kontratazioa 618 072 076 - 026

**AZKIE**  
FUNDATIA

**baga-biga**  
MUSIKA IDEIAK

Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus  
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)

